1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, jakiteko ea, Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Plana onetsi zenetik, Nafarroako Irisgarritasun Unibertsaleko I. Plana 12/2018 foru-legearen arabera egin den.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

1.- Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Plana onetsi zenetik, egin al da Nafarroako Irisgarritasun Unibertsaleko I. Plana 12/2018 foru-legearen arabera?

2.- Noiz?

3.- Hala izatera, genero-ikuspegia aintzat hartu al da? Nola?

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-22/PES-00528. Galdera, jakiteko ea, Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Plana onetsi zenetik, beharrezko araudi teknikoa erregelamendu bidez garatu den, bermatzeko ez dagoela diskriminaziorik teknologia, ingurune, prozesu, produktu, ondasun eta zerbitzuen diseinuetan eta garapenetan.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, jakiteko ea, Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Plana onetsi zenetik, beharrezko araudi teknikoa erregelamendu bidez garatu den, bermatzeko ez dagoela diskriminaziorik teknologia, ingurune, prozesu, produktu, ondasun eta zerbitzuen diseinuetan eta garapenetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

1.- Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Plana onetsi zenetik, erregelamendu bidez garatu al da beharrezko araudi teknikoa, bermatzeko ez dagoela diskriminaziorik teknologia, ingurune, prozesu, produktu, ondasun eta zerbitzuen diseinuetan eta garapenetan?

2.- Nola eta noiz?

3.- Egun dagoen araudia aztertu da?

4.- Nola eta noiz?

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-22/PES-00529. Galdera, jakiteko ea, Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Plana onetsi zenetik, irisgarritasunari buruzko aholkularitza sustatu den, irisgarritasunari laguntzeko produktuen zentroaren bidez.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, jakiteko ea, Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Plana onetsi zenetik, irisgarritasunari buruzko aholkularitza sustatu den, irisgarritasunari laguntzeko produktuen zentroaren bidez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

1.- Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Plana onetsi zenetik, sustatu al da irisgarritasunari buruzko aholkularitza irisgarritasunari laguntzeko produktuen zentroaren bidez?

2.- Nola eta noiz?

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-22/PES-00530. Galdera, jakiteko ea, Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Plana onetsi zenetik, irisgarritasun unibertsala kudeatzeko plan espezifikoa sortu diren departamentu eta erakunde autonomo bakoitzean, espazio publiko, azpiegitura eta eraikinez bezainbatean legean ezarritako irisgarritasun-neurriak mantentzeko eta garatzeko.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, jakiteko ea, Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Plana onetsi zenetik, irisgarritasun unibertsala kudeatzeko plan espezifikoa sortu diren departamentu eta erakunde autonomo bakoitzean, espazio publiko, azpiegitura eta eraikinez bezainbatean legean ezarritako irisgarritasun-neurriak mantentzeko eta garatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

1.- Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Plana onetsi zenetik, sortu al dira irisgarritasun unibertsala kudeatzeko plan espezifikoa departamentu eta erakunde autonomo bakoitzean, espazio publiko, azpiegitura eta eraikinez bezainbatean legean ezarritako irisgarritasun-neurriak mantentzeko eta garatzeko?

2.- Zeintzuk eta noiz?

3.- Zein departamentuk edo erakunde autonomok egin dute?

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-22/PES-00531. Galdera, jakiteko ea, Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Plana onetsi zenetik, Irisgarritasunaren eta desgaitasunaren ondoriozko eraginari buruzko txostenak egiteko protokoloak prestatu diren foru-legeen eta erregelamendu-xedapenen proiektuak onartzeko prozedura guztietan.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

<Ninguno>Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Ele-dunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, jakiteko ea, Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Plana onetsi zenetik, Irisgarritasunaren eta desgaitasunaren ondoriozko eraginari buruzko txostenak egiteko protokoloak prestatu diren foru-legeen eta erregelamendu-xedapenen proiektuak onartzeko prozedura guztietan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

1.- Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Plana onetsi zenetik, irisgarritasunaren eta desgaitasunaren ondoriozko eraginari buruzko txostenak egiteko protokoloak prestatu al dira foru-legeen eta erregelamendu-xedapenen proiektuak onartzeko prozedura guztietan?

2.- Zeintzuk eta noiz?

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

G saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

40/22 Ebazpena, 2022ko abenduaren 12koa, Nafarroako Arartekoarena, zeinaren bidez onartzen baita Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza bat (C maila) merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko deialdia, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan.

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren hamaikagarren xedapen gehigarriak aurreikusten du, salbuespen gisa, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozeduretarako deialdia egitea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak ezartzen duenarekin bat etorritz.

2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Nafarroako Parlamentuan aldi baterako enplegua egonkortzeko akordioa onartu zuen, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen esparruan onartua. Akordioak aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen mende dauden plantilla organikoko lanpostuak identifikatzen ditu. Horien artean dago Nafarroako Arartekoaren Bulegoari atxikitako administrari plaza bat (C maila), zeina merezimendu-lehiaketa bidez hornituko baita.

2022ko urriaren 10eko Akordioaren bidez, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Nafarroako Arartekoari eskuordetu zion plaza hori deitzeko eskumena. Azken akordio hori Nafarroako Arartekoaren Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamenduaren 24.2 artikuluan aurreikusitakotik dator, honako hau xedatzen baitu: "Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak bere plantillako langileei dagozkien lanpostuak aukeratu eta beteko ditu, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eskuordeturik

eta hari jakinarazirik, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan xede horretarako ezarriak dauden prozeduren bitartez eta langileen plantillan aurreikusitakoarekin bat".

Horren ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeari eta erakundearen antolaketa eta funtzionamendu erregelamenduari jarraikiz,

HAU EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Onartzea Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari lanpostu bat (C maila) merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko deialdia, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan, bai eta deialdi horren oinarri arautzaileak ere (l. eranskina).

Bigarrena. Deialdia eta oinarriak Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Arartekoaren web orrian argitara daitezen agintzea.

Hirugarrena. Ebazpen honen berri ematea Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, 2022ko urriaren 10eko Akordioan aurreikusitakoarekin bat, eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta epaimahaiko ordezkaria izenda dezan.

Iruñea, 2022ko abenduaren 12a

Nafarroako Arartekoa: Patxi Vera Donazar

I. ERANSKINA

Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza (C maila) merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko deialdiaren oinarri arautzaileak, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan.

1. Xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da, merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez, Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza bat (C maila) betetzea, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2022ko maiatzaren 30eko eta urriaren 10eko erabakietan xedatutakoaren arabera.

1.2. Lehiaketa Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan xedatutakoaren arabera burutuko da, bai eta, horren arabera, modu osagarrian, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan eta arlo horretan onartutako gainerako araudi osagarrian xedatutakoaren arabera ere.

1.3. Deialdi honen bidez izendatzen den izangaia Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat eta, zehazki, Administrazioen Kidegoko funtzionarioentzat ezartzen diren funtzioak, eskubideak eta betebeharrak egikaritzeko ditu.

Haren funtzioak, oro har, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 8.3 artikuluan ezarritakoak izanen dira, Nafarroako Arartekoaren legeria erregulatzailetik eta deitutako plaza atxikita dagoen erakunde horri esleitutako funtzioetatik eratortzen diren berezitasunekin.

1.4. Izendapenak Nafarroako Parlamentuko funtzionario izaera emanen dio izendatuari, indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten eskubide eta betebeharrak guztiekin.

1.5. Plaza C mailakoa da eta maila horri dagozkion ordainsariak ditu, bai eta Nafarroako Parlamentuko indarreko plantilla organikoan zehazten diren osagarriak ere; bertan sartzen da Nafarroako Arartekoaren bulegoa.

1.6. Izendaturiko funtzionarioa Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatuko da eta alta emanen zaio araubide horretan aurreikusitako babes-ekintzaren pean, salbu eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan eta gainerako xedapen osagarrietan aipatzen den eskubide pasiboan eta osasun- eta

gizarte-laguntzaren araubidean afiliatuta badago; kasu horretan, araubide horretan jarraitzea edo Gizarte Segurantzaren afiliatzea erabaki ahal du.

1.7. Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako funtzionarioentzat oro har ezarritako ordutegi eta txandetan eginen da lanaldia.

2. Betebeharrak.

2.1. Prozeduran onartua izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako nazionalitatea, Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuaren barruan dagoen estatu bateko nazionalitatea izatea, langileen zirkulazio askea aintzat hartuta.

Halaber, parte hartu ahal izanen dute Espainiako nazionalitatea duten pertsonen ezkontideek, bai eta Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea duten edo aipatutako nazioarteko itunen aplikazio-eremuan sartutako estatuetak nazionalitatea duten pertsonen ezkontideek ere, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta haien eta ezkontidearen ondorengoek ere, legezko banantzerik ez dagoenean, baldin eta hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorako kasuetan, haien kontura bizi badira.

b) Hamasei urte beteta izatea eta nahitaezko erretirorako ezarritako adina ez gainditzea.

c) Goi-mailako batxiler-titulua, bigarren mailako lanbide-heziketa edo baliokidea izatea.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, dagoen baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioa egiaztatzen duen kredentziala eduki beharko da.

d) Dagozkion funtzioak betetzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Ez egotea dagozkion funtzio publikoak betetzeko ezgaituta edo etenda, eta ez egotea administrazio publiko baten zerbitzuetatik bereizita.

2.2. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean eta lanpostua lortu arte bete beharko dira aurreko baldintza horiek.

2.3. Izangaiek deialdi honen oinarrietan zehazten den unean egiaztatu beharko dituzte baldintza horiek.

2.4. Ezin izanen dute prozeduran parte hartu Nafarroako Parlamentuan edo Nafarroako Arartekoan administrari lanpostua duten langile finkoek.

3. Eskabideak, epea eta dokumentazioa.

3.1. Parte hartzeko eskabideak Nafarroako Arartekoaren Erregistroan aurkeztuko dira (Emilio Arrieta kalea 12, behe, Iruñea) edo, bestela, bide elektronikoz bidaliko dira helbide honetara: erregistro@defensornavarra.es. Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean edo beste erregistro batzuetan ere aurkez daitezke, indarrean dagoen administrazio-araudiaren arabera.

3.2. Eskabideak II. eranskinean agertzen den ereduaren arabera eginen dira, eta eredu hori eskuragarri egonen da Nafarroako Arartekoaren web orrian (www.defensornavarra.es/eu).

Izangaiak deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela adierazi beharko dute.

% 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortuta duten pertsonak, merezimenduen baremoan oinarri hauetan aipatzen den zuzenketa-faktorea aplikakien, baldintza hori aitortu beharko dute parte hartzeko eskabidean.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamuniketik kontatzen hasita. Eskabideak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu.

3.4. Eskabideekin batera, izangaiak alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua aurkeztuko da, III. eranskineko ereduaren arabera.

3.5. Era berean, alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak erantsiko dira:

- Emandako zerbitzuak egiaztatzeko, kasuan kasuko herri-administrazioako organo eskudunak emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Ziurtagiri horietan zehatz-mehatz jaso beharko dira emandako zerbitzuak, eta berariaz adierazi beharko da lanpostuaren izena, alderdi hauen arabera: plantilla organikoa, maila, zerbitzu horiek eman ziren zentro edo unitatea, zerbitzu-emate bakoitzaren hasiera- eta amaiera-datak eta egoki den beste edozein datu.

- Sartzeko hautaketa-prozesu bat gainditu dela egiaztatzeko, administrazio-ebazpenaren fotokopia, argitalpen ofiziala edo organo eskudunak emandako ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko da.

- Titulazio akademikoak egiaztatzeko, dagoen titulu ofizialaren fotokopia aurkeztu beharko da, edo, bestela, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen titulu hori eskuratzeko eskubideak bete izanaren frogagiria.

- Hizkuntzen ezagutza egiaztatzeko, titulua edo ziurtagiria aurkeztu beharko da, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera.

4. Izangaiak onartzea. Behin-behineko eta behin betiko zerrenda.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Nafarroako Arartekoak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Arartekoaren webgunean argitaratzeko aginduko du.

Bazterturik ez badago, zuzenean onartu ahal izanen da behin betiko zerrenda.

4.2. Interesdunek hamar egun balioduneko epea izanen dute, Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, behin-behineko zerrendaren aurka egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko eta, hala badagokio, egindako akatsak zuzentzeko.

4.3. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta horiek ebatzi ondoren, Nafarroako Arartekoak onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartuko du, eta 4.1. apartatuan adierazitako modu berean argitaratuko da.

5. Kalifikazio-epaimahaia.

5.1. Epaimahai kalifikatzailea honako kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Carlos Sarasibar Marco jauna, Nafarroako Arartekoaren idazkari nagusia.

Ordezkoa: Susana Galilea Barrio andrea, Nafarroako Arartekoaren Kabinetearen burua.

Epaimahaikidea-idazkaria: Jorge Balduz Gil jauna, Nafarroako Arartekoaren kudeaketa-teknikaria.

Ordezkoa: Laura Ugarte Longás andrea, Nafarroako Arartekoaren aholkulari teknikoa.

Epaimahaikidea: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatuko du.

Ordezkoa: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatuko du.

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko da Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak proposatutako ordezkarien izendapena.

5.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, eta ezin izanen du jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bertaratu gabe. Halaber, epaimahaia behar bezala eratzeko, bai eta behar bezala jardun dezan, beharrezkoa izanen da lehendakaria eta idazkaria bertan egotea, edo, hala badagokio, haien ordezkioak.

5.3. Epaimahai kalifikatzaileko kideek ezin izanen dute parte hartu, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio-arrazoiren bat dagoenean. Eta deialdia egin duen organoari jakinaraziko diote hori.

Orobat, izangaiek zilegi dute aipatutako ingurubarrak dituzten epaimahaikideak errefusatzera.

Legez ezarritako abstentzio- eta errefusatzearrazoiak aplikatuz epaimahaiaren osieran aldatketaren bat gertatuko balitz, onartutakoen eta baztertutakoen zerrendarako aurreikusitako moduan argitaratuko litzateke.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarrien interpretazioari eta aplikazioari buruz sor daitezkeen arazo guztiak.

6. Merezimenduen baremoa eta lehiaketaren garapena.

6.1. Prozedura lehiaketa-fase bakarrean egingen da. Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, epaimahaiak bilera egingen du izangaiek aurkeztutako merezimenduak baloratzeko.

6.2. Izangai bakoitzaren guztizko puntuazioa honako atal hauetako bakoitzaren puntuen baturak zehaztuko du:

a) Lanbide-esperientzia (gehienez 60 puntu).

Deialdi hau argitaratzen den egunera arte Nafarroako Arartekoaren erakundearen, Nafarroako Parlamentuan eta beste administrazio publiko batzuetan egindako zerbitzuak baloratuko dira.

Esperientzia honako puntuazio eta arau hauen arabera baloratuko da:

a.1) Nafarroako Arartekoaren erakundearen administrari lanpostuan emandako zerbitzuak (C maila): 3 puntu zerbitzu-urte oso bakoitzeko.

a.2) Nafarroako Parlamentuan administrari lanpostuan emandako zerbitzuak (C maila): 2 puntu zerbitzu-urte oso bakoitzeko.

a.3) Nafarroako Arartekoaren erakundearen beste lanpostu batzuetan emandako zerbitzuak: 1,5 puntu zerbitzu-urte oso bakoitzeko.

a.4) Nafarroako Parlamentuan beste lanpostu batzuetan emandako zerbitzuak: 1 puntu zerbitzu-urte oso bakoitzeko.

a.5) Beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak deialdiaren xede den lanpostu berean: 0,75 puntu zerbitzu-urte oso bakoitzeko.

Urte kopurua osoa ez bada, zerbitzuak eman diren aldiari proportzionalki dagokion puntuazioa emanen da.

Zerbitzu-emateen hasiera-datatik amaieradatar arte emandako zerbitzuak baloratuko dira, lanaldiaren ehunekoa edozein dela ere.

Bateraezinak izanen dira aurreko azpiataletan emandako puntuazioak, aldi berekoak direnean, eta kasu bakoitzean puntuazio altuena esleituko da.

Izangaia prestakuntzarako zerbitzu berezietan edo jarduneko egoera berezian egon den aldiei dagokienez, benetan betetako lanpostuan emandako zerbitzutzat hartuko dira.

Ostera, izangaia beste arrazoi batzuegatik (eszedentzia berezia edo buruzagitza bat) zerbitzu berezietan egon den aldiei dagokienez, egoera horietara heltzeko unean zuen lanpostuan emandako zerbitzutzat hartuko dira.

b) Beste merezimendu batzuk (gehienez ere 40 puntu).

b.1) Nafarroako Arartekoaren erakundearen administrari lanpostuan sartzeko prozesu bat plazarik gabe gainditu izanagatik: 15 puntu gainditutako deialdi bakoitzeko.

b.2) Nafarroako Parlamentuan administrari lanpostuan sartzeko prozesu bat plazarik gabe gainditu onartu izanagatik: 10 puntu gainditutako deialdi bakoitzeko.

b.3) Nafarroako Arartekoaren erakundearen beste lanpostu batean sartzeko prozesua plazarik gabe gainditu izanagatik: 7,5 puntu gainditutako deialdi bakoitzeko.

b.4) Nafarroako Parlamentuan beste lanpostu batean sartzeko prozesu bat plazarik gabe gainditu izanagatik: 5 puntu gainditutako deialdi bakoitzeko.

b.5) Lortu nahi den lanpostuan eskakizun gisa eskatzen dena baino maila altuagoko titulazio akademiko ofiziala izateagatik, edo administrazio kudeaketako teknikariaren bigarren mailako lanbide-heziketako titulua edo teknikari espezialistaren titulua (administrazio espezialitatea) edo baliokidea izateagatik gradu eta espezialitateari dagokienez: 7 puntu (azpiatal honen gehieneko puntuazioa).

b.6) Euskara jakitea: Hizkuntzetarako Europa-ko Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailaren baliokidea den ezagutza-maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiri bat edukiz gero, 7 puntu jasoko dira. Titulazio edo ziurtagiri hori izan ezean, gehie-

neko puntuazioaren 1/5ean baloratuko da Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A1 mailaren baliokidea den titulu edo ziurtagiri bat edukitzea, 2/5ean A2 mailaren baliokidea izatea, 3/5ean B1 mailaren baliokidea izatea, eta 4/5ean B2 maila izatea. Mailarik altueneko titulua bakarrik baloratuko da.

b.7) Ingelesa, frantsesa eta alemana jakitea, Europar Batasuneko lan-hizkuntza gisa: Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailaren baliokidea den ezagutza-maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiri bat edukiz gero, 5 puntu jasoko dira. Titulazio edo ziurtagiri hori izan ezean, gehieneko puntuazioaren 1/5ean baloratuko da Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A1 mailaren baliokidea den titulu edo ziurtagiri bat edukitzea, 2/5ean A2 mailaren baliokidea izatea, 3/5ean B1 mailaren baliokidea izatea, eta 4/5ean B2 maila izatea. Mailarik altueneko titulua bakarrik baloratuko da. Azpiatal honen gehieneko puntuazioa 7 puntukoa izanen da.

Merezimenduen balorazioa aurreko apartatuetan ezarritakoaren arabera egin ondoren, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa egiaztatzen duten pertsonak lortutako puntuazioari 1,5 puntu gehituko zaizkio, zuzenketa-faktore gisa.

6.3. Berdinketarik gertatuz gero, a.1) atalean puntuaziorik altuena duen pertsonaren alde ebatziko da. Berdinketa bada hala ere, gainerako azpiatalak kontuan hartuta ebatziko da, horiek zerrendatzen diren hurrenkeran.

Irizpide horiek aplikatu ondoren berdinketa izaten jarraitzen badu, epaimahaiak zozketa bakarra egiten du horretarako, eta horrela ebatziko da. Alfabetoari jarraiki abizenen arabera ordenatuta, berdinduetako bakoitzari zenbaki bat esleitu zaio, eta, ondoren, zozketa egiten da. Hala, zenbaki bat atera, eta hura izanen da hautatua.

6.4. 3.4 eta 3.5 oinarrietan adierazitakoaren arabera alegatu eta egiaztatuko dira merezimen-
duak.

Merituak baloratzeko, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu arte lortutakoak bakarrik hartuko dira kontuan, eta ez dira aintzat hartuko ondoren lortutakoak.

Dokumentuek baremoa aplikatzeko eskatzen den informazio guztia jaso beharko dute. Ez dira aintzat hartuko justifikatu gabeko merezimen-
duak, ezta baremoan ezarritakoekin bat ez datorren merezimendurik ere. Epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal izanen ditu hautagaiek alegatutako

merezimenduei buruzko azalpenak eta datu osagarriak.

6.5. Merezimenduen balorazioa amaitu ondoren, epaimahaiak Nafarroako Arartekoaren webgunean argitaratuko ditu izangaiek lortutako puntuazioak, eta bost egun balioduneko epea irekiko du, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izangaiek erreklamazioak egin ahal izateko eta merezimenduen balorazioari dagokionez beren eskubideen alde egokitzat jotzen dutena alegatzeko.

6.6. Epaimahaiak ezarri diren erreklamazioak ebatzi ondoren, behin betiko puntuazioak argitaratuko ditu Nafarroako Arartekoaren webgunean.

7. Izendapen-proposamena eta baldintzak egiaztatzea.

7.1. Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak Nafarroako Arartekoari bidaliko dio puntuaziorik altuena lortu duen izangaia-
ren aldeko izendapen-proposamena, baita aktak eta lehiaketako gainerako dokumentazioa ere. Proposamen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Arartekoaren webgunean argitaratuko da.

7.2. Izendapen-proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo 30 egun naturalen barruan, proposatutako izangaia-
dokumentu hauek aurkeztu beharko dizkio Nafarroako Arartekoaren erakundeari:

a) Izangaia-aren nazionalitatea eta nortasuna egiaztatzen duen nortasun-agiri nazionalaren edo agiri baliokidearen kopia.

b) 2.1.c) oinarrian eskatutako titulu-
tako baten kopia, edo titulu horiek lortzeko eskubideak bete izanaren frogagiria.

c) Lan-osasunaren arloko organo eskudunak emandako txostena. Horren bidez egiaztatuko da interesdunak ez duela lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten dion gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik. Txosten hori ofizioz aurkeztuko da, horretarako osasun-azterketa egin ondoren.

d) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaituta edo etenda ez dagoela eta administrazio publiko baten zerbitzuetatik bereizita ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena.

e) Nafarroako Foru Erregimena errespetatzeko, Konstituzioari eta legeei men egiteko eta karguari dagozkion betebeharrak zintzoki betetzeko zina edo promesa.

7.3. Proposatutako izangaiak aitortutako desgaitasun bat alegatu badu, baremoa aplikatze aldera, baldintza hori egiaztatu beharko du epe berean, organo eskudunak emandako agiri baten bidez.

7.4. Adierazitako epearen barruan, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiri horiek aurkezten ez dituen edo deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez duen pertsona ezin izanen da izendatu, eta bere jarduketa guztiak baliogabetuta geratuko dira, eskabidean datu faltsuak emateagatik izan dezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

7.5. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuan, Nafarroako Arartekoak, puntuazioaren hurrenkerrari jarraiki, hurrengo izangaiarekin beteko du plaza, eta aurreko apartatuetan jasotako prozedura bera jarraituko du haren kasuan ere.

8. Izendapena.

8.1. Aipatutako agiriak aurkeztu ondoren, Nafarroako Arartekoak funtzionario izendatuko du proposatutako izangaia. Izendapen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Arartekoaren webgunean argitaratuko da.

8.2. Izendapena jakinarazi eta hilabeteko epean, izangaiak lanpostua hartu beharko du Nafarroako Arartekoaren aurrean.

8.3. Adierazitako epean lanpostua hartzen ez duen izangaiak lehiaketatik eratorritako eskubideei

uko egiten diela ulertuko da, eta, kasu horretan, puntuazio-zerrendan hurrengo postuan dagoenak beteko du plaza.

9. Jarduketen publikotasuna.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean edo Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean ofizialki argitaratu behar diren izapideei kalterik egin gabe, auzitegiaren jarduketei buruzko informazioa eta interesdunentzat baliagarria izan daitekeen beste edozein informazio orokor Nafarroako Arartekoaren webgunean argitaratuko da: www.defensornavarra.es/eu.

10. Errekurtsoak.

10.1. Deialdi honen, bere oinarrien eta prozeduran Nafarroako Arartekoak emandako gainerako ebazpenen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan. Horretarako, bi hilabeteko epea egonen da, dena delako ebazpena argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izanen zaio Nafarroako Arartekoari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

10.2. Deialdi honi dagokionez epaimahai kalifikatzaileak hartzen dituen eta ebazpen izaera duten gainerako aplikazio-egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izanen zaio Nafarroako Arartekoari, hilabeteko epean, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

II. ERANSKINA

Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza (C maila) merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko deialdian parte hartzeko eskabidea.

_____ jaunak/andreak NAN/AIZ: _____;
 helbidea: _____
 (kalea, solairua, posta-kodea eta udalerrria); telefonoa: _____, eta helbide elektronikoa:
 _____, honako hau,

ESKATZEN DU:

Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza (C maila) merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko deialdian parte hartzea.

ADIERAZTEN DU:

- Deialdi hori arautzen duten oinarrietan ezarri diren parte hartzeko baldintzak betetzen dituela, eta hori dagokion prozeduraren fasean egiaztatuko duela.
- Alegatutako merezimenduen zerrenda eta horien egiaztagiria aurkeztu dituela.
- Oinarri arautzaileak onartzen dituela eta bere datu pertsonalen tratamendua baimentzen duela, prozeduraren kudeaketari eta ebazpenari dagokionez.

(markatu hala badagokio) % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duen pertsona dela aitortuta duela, eta hori alegatzen du aurreikusitako baremoa aplikatzeko.

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n.

Eskatzailearen sinadura

NAFARROAKO ARARTEKOA**DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA**

Datu pertsonalen babesarekin lotutako alderdi guztietan, Nafarroako Arartekoak 2016ko apirilaren 27ko Europako Araudiarekin, uztailearen 3ko 4/2000 Foru Legearekin eta bere jarduerari aplikagarri zaizkion gainerako legeekin bat etorri jarduten du.

1. Arduraduna: Nafarroako Arartekoa. **2. Xedea:** erakundearen jardura administratiboa (langileak, kontratazioa, zergak...). **3. Legitimazioa:** Kontratu, estatutu edo lege bidezko harremana betetzea. **4. Hartzaileak:** administrazio eta erakunde publikoak eta banketxeak. **5. Eskubideak:** atzipena, zuzenketa, ezabapena, tratamenduaren mugaketa, aurkaratzea, eramangarritasuna eta onespenean atzera egitea, legez ezarritako baldintzetan. **6. Datuen jatorria:** administrazio eta erakunde eskudunak, eta interesdunak. **7. Informazio osagarria:** www.defensornavarra.es/eu webgunean kontsultatu daiteke (datuen babesa).

Datuen babesari eta beren eskubideak erabiltzeari dagokionez, interesdunek hona jo dezakete: Nafarroako Arartekoa helbidea: Arrieta 12, etxabea, Iruñea (Posta-kodea: 31002), telefono zk.: 948 203571, helbide elektronikoa info@defensornavarra.es.

III. ERANSKINA

Alegatutako merezimenduen zerrendaren eredia

_____ jaunak/andreak (NAN/AIZ: _____) adierazten du Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza (C maila) merezimendu-lehiaketaren salbuespenetzko sistemaren bidez betetzeko deialdiaren 6. oinarrian zehaztutako balorazio-irizpideei dagokienez, honako merezimendu hauek aurkezten dituela balorazioa egin dadin:

a) LANBIDE-ESPERIENTZIA:

		Iraupena
a.1)	Nafarroako Arartekoaren erakundean administrari lanpostuan emandako zerbitzuak (C maila).	
a.2)	Nafarroako Parlamentuan administrari lanpostuan emandako zerbitzuak (C maila).	
a.3)	Nafarroako Arartekoaren erakundean beste lanpostu batzuetan emandako zerbitzuak.	
a.4)	Nafarroako Parlamentuan beste lanpostu batzuetan emandako zerbitzuak.	
a.5)	Beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak lanpostu berean.	

b) BESTE MEREZIMENDU BATZUK:

		Gainditutako deialdien kopurua
b.1)	Nafarroako Arartekoan administrari lanpostua betetzeko prozesua gainditzea plazarik gabe.	
b.2)	Nafarroako Parlamentuan administrari lanpostua betetzeko prozesua gainditzea plazarik gabe.	
b.3)	Nafarroako Arartekoan beste lanpostu batean sartzeko prozesua gainditzea plazarik gabe.	
b.4)	Nafarroako Parlamentuan beste lanpostu batean sartzeko prozesua gainditzea plazarik gabe.	

b.5)	Merezimendu gisa alegatutako titulazio akademiko ofiziala:	

		Maila
b.6)	Euskara jakitea.	

	Conocimiento de inglés, francés y alemán.	Maila
b.7)	Ingelesa	
b.7)	Frantsesa	
b.7)	Alemana	

Honekin batera doaz aurreko apartatuetan alegatutako merezimendu bakoitzaren egiaztagiria.

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n.

Eskatzailearen sinadura

NAFARROAKO ARARTEKOA

